

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

### **1. MAILA**

**2026/2027 IKASTURTEA**

## **MODULU LANERAKO IKASLEAREN GIDA**



### **K1 MODULUA**

### **IRAKASLE LANBIDEA**

**Moduluaren koordinatzailea:** Olatz Dañobeitia Ceballos

## AURKIBIDEA

|                                                              |           |
|--------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. SARRERA</b>                                            | <b>2</b>  |
| <b>2. MODULUAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK</b>                 | <b>3</b>  |
| <b>3. MODULU LANAREN AURKEZPENA</b>                          | <b>4</b>  |
| 3.1. Aurrekariak                                             | 4         |
| 3.2. "Irakasle Lanbidea" izeneko modulua                     | 4         |
| <b>4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK</b> | <b>5</b>  |
| <b>5. EGIN BEHARREKO LANA</b>                                | <b>8</b>  |
| 5.1. Ezaugarri orokorrak                                     | 8         |
| 5.2. Metodologia                                             | 8         |
| 5.3. Lana egiteko orientabideak                              | 8         |
| 5.3.1. Hasierako egoera                                      | 8         |
| 5.3.2. Lanaren egitura eta ezaugarriak                       | 9         |
| 5.4. Tutorizatutako lana                                     | 11        |
| 5.4.1. Tutorearen zereginak                                  | 11        |
| 5.4.2. Ikasleen zereginak                                    | 12        |
| 5.4.3. Egin beharreko tutoretzen helburua                    | 12        |
| 5.5. Lanaren faseak eta ematekoak                            | 13        |
| 5.6. Kontuan hartzeko beste alderdi batzuk                   | 14        |
| <b>6. EBALUAZIOA</b>                                         | <b>15</b> |
| 6.1. Etengabeko ebaluazio sisteman                           | 15        |
| 6.2. Azken ebaluazio sisteman                                | 15        |
| <b>7. OHIKO GALDERAK</b>                                     | <b>16</b> |
| <b>8. ERREFERENTZIAK</b>                                     | <b>17</b> |
| <b>9. ERANSKINAK</b>                                         | <b>18</b> |

## 1. SARRERA

Lerro hauen bidez aurkeztera gatozen gida hau Hezkuntza eta Kirol Fakultatean proposatu den diziplinarteko lanaren prozesua azaltzean datza; hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Gradueta ageri den lehen modulua: *Irakasle lanbidea*.

Irakasle lanbidea izena duen modulu honetan ondoko bost ikasgai hauek hartzen dute parte: *Hezkuntzaren Soziologia, Hezkuntzaren Teoria eta Historia, Irakaskuntza-Funtzioa, Komunikazio Gaitasunaren Garapena I eta Garapenaren Psikologia Eskola Adinean*.

Material honek bi helburu nagusi ditu: batetik, moduluko diziplinarteko proiektuak ekarritako planteamendu berritzailearen ildo nagusiak islatzea; bestetik, horrekin lotuta sor daitezkeen zalantzarik ohikoenak argitzea.

Ondotik, gidaren egitura labur esplizitatu nahi dugu, bertako edukien segida zernolakoa den jakinaraziz. Lehenik, prozesuaren aurrekariak azaltzen dira. Bigarrenik, moduluko lana eta bere testuingurua jorratzen dira. Hirugarrenik, modulu honetan ikasleek egin behar duten modulu lanaren nondik norako nagusiez jarduten da: konpetentziak, edukiak, metodologia, ebaluazioa eta abar. Laugarrenik erreferentzia bibliografikoak agertzen dira eta, bukatzeko, eranskinak.

Sarrera amaitu aurretik, ikasketa plangintza berriak ekarritako aldaketa ugariren artean, bi azpimarratu nahi ditugu: ikasgaien arteko koordinazioa eta diziplinartekotasuna. Azken batean, elkarrekin aritzeko esparrua da geure Fakultatean eraikitzen ari garena, elkarren ondoan lan egiteko, bakoitzak bere arlotik baina helburu komunekin, geroko maisu-maistrak hobeto prestaturik atera daitezen.

ONGI ETORRI HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATERA!

## 2. MODULUAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK

Ondoren, modulu honetan parte-hartzen duten ikasgaiak eta irakasleak agertzen dira.

### 46. Taldea

| IKASGAIA                              | IRAKASLEA           | EMAILA                                                                         | TELEFONOA   | BULEGOA |
|---------------------------------------|---------------------|--------------------------------------------------------------------------------|-------------|---------|
| Hezkuntzaren Teoria eta Historia      | Igor Camino         | <a href="mailto:igor.camino@ehu.eus">igor.camino@ehu.eus</a>                   | 945 01 3273 |         |
| Hezkuntzaren Soziologia               | Marina Sagastizabal | <a href="mailto:marina.sagastizabal@ehu.eus">marina.sagastizabal@ehu.eus</a>   | 945 01 4273 | PDI003  |
| Komunikazio Gaitasunaren Garapena I   | Maite Aperribay     | <a href="mailto:maite.aperribay@ehu.eus">maite.aperribay@ehu.eus</a>           | 945 014209  | B3      |
| Garapenaren Psikologia Eskola Adinean | Nagore Arbaiza      | <a href="mailto:nagorezurine.arbaiza@ehu.eus">nagorezurine.arbaiza@ehu.eus</a> | 94501 238   | PDI001  |
| Irakasle Funtzioa                     | Leire Aranburu      | <a href="mailto:leire.aranburu@ehu.eus">leire.aranburu@ehu.eus</a>             | 945 01 4171 |         |

### 47. Taldea

| IKASGAIA                              | IRAKASLEA        | EMAILA                                                                 | TELEFONOA   | BULEGOA |
|---------------------------------------|------------------|------------------------------------------------------------------------|-------------|---------|
| Hezkuntzaren Teoria eta Historia      | Iñaki Gonzalez   | <a href="mailto:inaki.gonzalez@ehu.eus">inaki.gonzalez@ehu.eus</a>     | 945 01 4176 |         |
| Hezkuntzaren Soziologia               | Olatz Dañobeitia | <a href="mailto:olatz.danobeitia@ehu.eus">olatz.danobeitia@ehu.eus</a> | 945 01 3416 | PDI003  |
| Komunikazio Gaitasunaren Garapena I   | Maite Aperribay  | <a href="mailto:maite.aperribay@ehu.eus">maite.aperribay@ehu.eus</a>   | 945 014209  | B3      |
| Garapenaren Psikologia Eskola Adinean | Priscila Comino  | <a href="mailto:priscila.comino@ehu.eus">priscila.comino@ehu.eus</a>   | 945014201   |         |

|                      |                   |                                                                    |             |  |
|----------------------|-------------------|--------------------------------------------------------------------|-------------|--|
| Irakasle<br>Funtzioa | Garazi<br>Alvarez | <a href="mailto:garazi.alvarez@ehu.eus">garazi.alvarez@ehu.eus</a> | 945 01 4175 |  |
|----------------------|-------------------|--------------------------------------------------------------------|-------------|--|

### 3. MODULU LANAREN AURKEZPENA

#### 3.1 Aurrekariak

2003-2005 ikasturte bitartean Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolak 1 bere Autoebaluazio Txostena garatu zuen, horretatik hausnarketarako eta hobekuntzarako hainbat ondorio atera zirelarik. Ateratako emaitzak orokorrean positiboak izan ziren, baina zenbait ahulezia ere agertzen ziren: koordinazioaren eta tutorizazioaren beharra gomendatzen zen hobekuntzari begirako bide horretan. Ondorioz, Eskolak laster ekin zion hobekuntzak egiteari, horretarako hainbat jarduera antolatuz. 2008 urteak garrantzi handia eduki zuen, horretan hasi baitzen egungo Graduetako plangintza diseinatzen; Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua eratzeko 1999an abian jarritako prozesua, *Bolonia Plana* izenez ezagutzen duguna, guregana ailegatua zen, eta horren eskakizunak bete behar genituen: ECTS kredituak, konpetentziak, moduluak, ... Irakasle formakuntzari begira, Planak bi Gradu ezartzea zekarren: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, horietako bakoitzak lau maila edukiz.

Graduen diseinurako, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru campusetako Irakasle Eskolak (gaur egun Fakultate) eta horien barruko Siletako ordezkariak barne hartu zituen Eskolen Arteko Batzordea sortu zen. Batzordeak graduek eduki behar zuten lau kursoetako egiturari forma eman zion, horretarako Hezkuntza Ministerioak ezarritako konpetentziak oinarritzat hartuta. Ohitura, kultura eta lan metodoak aldatzea ez da erraza izaten, baina gure Fakultateak gogotsu egin du planteamendu honen alde.

#### 3.2 “Irakasle lanbidea” izeneko modulua


Lehentxeago aipatutako Eskolen Arteko Batzordean hartutako erabakien ondorioz, ikasgaiak diziplinarteko izaera edukiko zuten multzotan bildu ziren, eta ikasgai multzo horiei modulu izena eman zitzaien. Horrela, diziplinarteko irakaskuntza ereduaren aldeko

<sup>1</sup> Gaur egun Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

apustua gailendu zen, zeharkako konpetentziak lortzeko asmoz (definizioak ikusteko, eranskinetan txertatutako glosategira jo daiteke). Hona hemen, hain zuzen, modulu planteamendu hau islatzen duen grafikoa:

## 1 Irudia

*Haur Hezkuntzako Gradu K1 Moduluaren Adierazpen Grafikoa*



Hortaz, moduluko egiturak diziplinen arteko zatiketa –urruntzea– gaitutiko duen kultura aldaketa eskatzen du. Horrela, planteamendu pedagogiko honek bere zentzu betea hartzen du irakasle-taldeak arlo guztiak integratzen dituen diziplinarteko zereginak elkarrekin planifikatzen dituenean. Izan ere, modulu lan horren bidez, ikasleek modurako diseinatu diren zeharkako konpetentziak eskuratuko dituzte eta irakasleen elkarlana bultzatuko duen tresna bihurtuko da.

## 4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK

Modulu honen konpetentziak landu eta garatu ahal izateko proposatuko diren gaiak euskalduntzearekin, kulturartekotasunarekin, disparekotasunekin, segregazioekin,

hezkidetzarekin eta familiekin izan beharreko harremanarekin lotuta daude. Gai horiek zeharkatzen dituen Unesco-ren Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) hainbat dira, hain zuzen: Osasuna eta Ongizatea (GIH3), Kalitatezko Hezkuntza (GIH4), genero-berdintasuna lortzeko helburuarekin (GIH 5), Hizkuntza eta kultura aniztasunaren helburuarekin (GIH 18 ), Desberdintasunak murriztearen helburuarekin (GIH 10). GIH hauek ere harreman estua izango dute gure modulu konpetentziekin, baita metodologiarekin ere.

Modulu lanak helburu anitz izango ditu: hautatutako gaia moduluko irakasgaien ikuspegitik jorratzea, iturri akademikoak eta fidagarriak erabiliz; gaia aztertu ondoren, hezkuntza proposamen arrazoituak ematea, haurraren ongizatearen sustapena kontuan hartuta; kalitatezko eskola eremuaren barruan, hezitzaileen eginkizunaren aurrean, jarrera kritikoak eta arduratsuak izatea; familiekin eta hezkuntzaren beste profesionalekin batera lan egiteko ahalmena egitea, haurrari bideratutako ongizate ereduaren arabera; eta bukatzeko, idatzizko txosten akademiko bat gauzatzea.

Ikaskuntza helburu horiek guztiak lortzeko, ondorengo taulan agertzen dira lauhilekoan zehar jorratuko diren konpetentziak.

## 1. taula

### Moduluko Konpetentziak

|                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| M01. Ikasleek ezagutu, aztertu eta balioetsi ditzatela baldintzatzaile historikoak, sozialak, psikologikoak eta pedagogikoak, eta hauen arabeko hezkuntza jardunak, uler dezaten eskolak gizartean duen eginkizuna eta haiek hezitzaile lanetan duten zeregina gaurko egunean. |
| M02. Ikasleek ezagutu eta azter ditzatela Eskolaren egoera eta arazoak, ikuspuntu orokor diziplinarteko batetik, gai izan daitezen familiekin batera eta hezkuntzako profesionalekin batera lan egiteko, esku-hartzea egokituz komunikazio eta harreman egoera desberdinei.    |
| M03. Ikasleak unibertsitatean beharrezkoa den alfabetatze akademikoan trebatzen has daitezen.                                                                                                                                                                                  |
| M04. Ikasleak lan kooperatiboan trebatzen has daitezen.                                                                                                                                                                                                                        |

Lehen modulu honetan **alfabetatze akademikoaz** ere hitz egiten dugu, ikasleek tresna, ohitura eta forma akademikoei neurri egokia har diezaieten graduaren hasieran. Ikasleen lanek -ahozkoak nahiz idatzizkoak- zenbait baldintza bete behar dituzte; aitortpena duten informazio iturriak bilatzea, informazioa era egokian kudeatzea eta erabilitako iturriak ondo aipatzea ezinbesteko baldintzak izango dira. Halaber, ahozko

nahiz idatzizko lanek egitura formala izan beharko dute (aurrerago zehaztuko den moduan).

Irakasle lanbidea moduluan beste gako bat **lan kooperatiboa** da. Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetakoa ikasleek beren etorkizunean irakasle taldeetan lan egiteko prestatu behar dira. Halaber, gure eskoletako irakasle lanean ikaskuntza kooperatiboa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Hau dela eta, taldeka lan egiteko gaitasuna garatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Lankidetzaren partekatutako helburuak lortzeko elkarrekin lan egitea da. Lankidetzan, pertsona bakoitzak berarentzat eta guztientzat onuragarriak diren emaitzak bilatzen ditu (Johnson et al., 1999).

Aipatutako alfabetatze akademikoak eta lan kooperatiboak moduluko irakasleek definitu duten **oinarri akademikoa** osatzen dute. Izan ere, halako oinarriaz ikasle berrien egokitzapena bermatu nahi da, unibertsitatera nahiz, etorkizunean, irakasle lanbidera; lanbide honek eskatzen dituen **jarrera eta gaitasuna** kontuan hartuta. Era berean, oinarri akademikoa beharrezkoa da zeharkako konpetentziak garatzeko eta ondorengo modulu nahiz mailetakoa lanak arrakastaz burutzeko, azken helmuga Gradu Amaierako Lana izanik (GrAla).

Gakoak diren konpetentzia hauek garatzeko, modulu eta lauhilekoan zehar hainbat jarduerak, formakuntza proposatuko dira, betiere ikaslea bere ikaskuntzaren prozesua protagonista izatea bilatuko dutenak. Bukatzeko, konpetentziak martxan jarrita, taldeka, egokitze-aldiari buruzko idatzizko lan bat sortu beharko da. Jarraian eskaintzen den taulan jardueren, modulu konpetentzien (MO) eta Unesco-ren Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) arteko harremana ikus daiteke.

## 2. taula.

*Moduluko jarduerak, konpetentziak eta GIHak*


|                                                                                                                                                           | M01 | M02 | M03 | M04 | GIH3 | GIH4 |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|-----|-----|-----|------|------|
| <b>Aste pedagogikoa</b> (lan akademiko bat ondo garatzeko tresnak, fakultate-liburutegiko bisitak, Irakasle lanbideari lotutako hitzaldiak eta dinamikak) | x   | x   | x   | x   | x    | x    |



|                                                                                                                                                                                     |   |   |   |   |   |   |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|---|---|---|---|---|
| <b>Idatzizko lana</b> (gaia aztertzea iturri akademiko-zientifikoak erabiliz, testuingurua kokatuz, haurraren ongizatea erdigunean jarrita eta nahi bada, proposamen batzuk sortuz) | x | x | x | x | x | x |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|---|---|---|---|---|

## 2. irudia.

Garapen iraunkorrerako helburuak 17+1 eredu



5.

## EGIN BEHARREKO LANA

### 5.1 Ezaugarriak orokorrak

**Modulu-lana ikasle-taldeek elkarlanean egindako txostena da, eta Haur Hezkuntzako Graduko hainbat gaitasun integratzea du helburu, ikaskuntza esperientzia esanguratsu, kooperatibo eta ikerketan oinarritutako baten bidez. Modulu lan horri esker, ikasleek egungo hezkuntza-errealitateari lotutako gaietan sakondu dezakete, diziplina arteko ikuspegitik, eta funtsezko gaitasunak garatzen laguntzen die, hala nola ikertzeko gaitasuna, idatzizko komunikazioa eta talde-lana**

## 5.2 Metodologia

2026-27 ikasturtean, ikerketa eta lankidetzako ikaskuntzan oinarritutako metodologiaren bidez, K1 moduluko ikasleek **moduluko konpetentziak** eta oinarri akademikoaren gakoak landuko dira, jarraian zehaztutako modulu lanaren bidez.

Lan horretan, hautatutako gai batean oinarriturik ikasleek, **4 ikasleko taldetan**, (salbuespen moduan 5 ikasleko taldeak ere onartuko dira) **idatzizko lan bat** gauzatu beharko dute.

UPV/EHUren IKD i3 hezkuntza ereduari jarraituz, Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa sustatze aldera, eta kontutuan hartuta Haur Hezkuntzako graduaren ikasle gisa hasiberriak zaretela, ausaz osatuko dira lan taldeak. **Lauhileko 2. astean zehar, taldeen osaketa egingo da, baita talde bakoitzak gaia hautatu eta justifikatzeko ariketa ere. Hirugarren astean, talde bakoitzari esleitutako tutorearen berri emango zaio eta segidan lehen tutoretza egingo dute, klase orduetan.**

Lanaren helburuetako bat taldeka lan egiten ikastea da Unibertsitatean; beraz, **ez da onartuko bakarkako lanik edo hasierako lan taldeen desagiterik**. Hala ere, salbuespenak eta ezohiko egoerak [Moduluaren Akordioaren Gidari](#) (Fakultateko web-orriaren eskuragarri) kontsulta daitezke.

**Comentado [IC1]:** Oraindik ez dago argitaratuta gida berria, Fakultate Batzarra 8an izango da

## 5.3 Lana egiteko orientabideak

### 5.3.1 Aukeratzeko gaiak

Ondoko gai orokor hauetariko bat hautatu beharko du ikasle taldeak. Eta behin hautatuta, gai horren barruan landu nahi duen ertza, azpi gaia edo begirada pentsatu eta arrazoitu beharko dute. Jarraian gaiak azalduko ditugu, eta baita horien baitan hautatu daitezkeen begiradak.

1. HAUR HEZKUNTZA, EUSKALDUNTZEA ETA KULTURARTEKOTASUNA: Euskara hizkuntza minorizatua da. Beraz, nagusi eta hegemonikoak diren hizkuntzekiko bizirauteko eta biziberritzeko erronka da berea. Haur Hezkuntzako haurrideen lehen gizarteratze fasean kokatzen den hezkuntza etapa da. Beraz, hizkuntza ikasi eta garatzeko garaian Haur Hezkuntzako irakasleek duten garrantzia funtsezkoa da. Euskara ofiziala da EAEn, ez ordea Nafarroako lurralde osoan, ezta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan ere. Erkidegoan ofiziala izanik ere, legeak agintzen duena betetzeko zailtasunak daude. Euskara

biziberritzeko hezkuntza funtsezkoa da eta giltza izan da joan den mende erdian. Hala ere, hezkuntzak euskararen ezagutza bermatzeko duen zereginean zailtasun ugari daude. Horrekin batera, Hezkuntzak euskal hiztunak sortzeko egin lezakeen ekarpena ere handiagoa izan daitekeela diote hainbat eragile euskaltzalek. Irakaslearen lanbidearen ikuspegitik landu gaia. Ertz askotatik landu daiteke gaia, adibidez: etxekoekin harreman hizkuntza, ikastetxeko bizi hizkuntza, euskara etxetik ez dakartenentzako eta testuinguru erdaldunetako harrentzako murgiltze ereduak, komunikabideak... Zuen esperientzia pertsonalak ere aztergai hartu ahal dituzue, ziurrenik oso testuinguru eta hizkuntza kudeaketa desberdinetatik baitzatozte.

2.HAUR HEZKUNTZA, HEZKIDETZA, PEDAGOGIA FEMINISTA ETA ZAINNTZA: Askok kontrakoa uste duten arren, Haur Hezkuntzako etapa oso garrantzitsua da generoaren eraikuntzan. Etapa horretan haurrek gizarteko eredu eta estereotipoak barneratzen dituzte; dela jolasen bidez, etxekoen bidez, komunikabideen bidez edota irakasleen bidez. Izan ere, jaio eta batera jasotzen dituzten mezuak eta jarrerak erabakigarriak dira genero identitatea eraikitze orduan. Etapa horretan ikasten dute zer den mutil izatea eta zer den neska izatea. Eta beraz, neska eta mutil izaten ikasten dute. Lehenik identifikazio goiztiarraren bidez, ondoren genero egonkortzearen bidez eta azkenik estereotipoak barneratuz. Gizarteak eta hezkuntzak generoa, binarismoa eta genero-harremanak berregiteko duen joerari erronka jotzeko Hezkidetzak abiatu zen hezkuntzaren esparruan, hori guztia deseraikitzen joateko. Joan den hamar urteetan pedagogia feministak ere garapen esanguratsua izan du, zehazki, Hezkidetzak egindako ekarpena sakontzeko eta eraldatzeko bidean. Landu gaia irakaslearen lanbidearen ikuspegitik. Ertz askotatik garatu daiteke gaia, adibidez: curriculum ezkutua, ageriko curriculum, etxekoekin harremana, zaintza praktikak antolatzeko modua, data zehatzen antolaketa, jolasak, musika, ipuinak, etxekoen egoera bereziak...

3.HAUR HEZKUNTZA ETA ASKOTARIKO SEGREGAZIOAK: SOZIOEKONOMIKOA, JATORRIAREN ETA ARRAZAREN ARABERAKOA. Euskal herritar guztiak ez gara berdinak. Aniztasun hori desberdinkeria ere bihurtzen da, eta horrek eskubide bermeen aurrean modu desberdinean kokatzen gaitu. Hezkuntza ere ez da neutroa, dagokion gizartearen eraikuntza delako. Horren ondorioz, gaur egun, hezkuntza eragilearen esanetan hezkuntzak segregazio sozioekonomikoa, linguistikoa, kulturala eta arrazakoa bultzatzen du. Eusko Jaurlaritzak ez du ukatzen datu hori, eta ikerketa askok berresten dute. Zer egin dezakegu irakasle gisa? Ertz askotatik landu daiteke gaia: arrazakeria, aurreiritziak eta estereotipoak,

hiri segregazioa, matrikulazio kanpainak, neurri baztertzailen identifikazioa, komunikabideak, kulturartekotasuna, estigma, jolasak, ipuinak, musika, lanbideekiko begiradak eta lanketak, sare publikoa eta itunpekoa...

4. HAUR HEZKUNTZA ETA IRAKASLEEN LANA GELATIK KANPO: GURASOAK, HEZKUNTZA SISTEMA, BESTE ERAGILEAK. Irakaslearen lanbidea ez da hurrekiko eta gelako harremanei lotuta soilik garatzen. Haur horien etxekoekin, ikastetxeko lankideekin eta egiturekin, Eusko Jaurlaritza eta Hezkuntza Ordezkaritzako baliabide eta estamentuekin ere harremanetan egon behar du irakasleak. Are gehiago, Heziberri 2020ren arabera, baita beste hezkuntza komunitatearekin (hezkuntza ez formala: udalekuak, eskolaz kanpoko aisialdia), udalerriko arduradunekin eta eragileekin ere. Azken batean, Hezkuntza gure gizarteak eraiki duen babes sistemaren parte da, osasuna, etxebizitza eta gizarte zerbitzuekin batera. Beraz, horiekin harremanetan eta lankidetzan aritzea ere badagokio irakasleari. Landu gaia irakasle lanbidearen ikuspegitik. Ertz askotatik landu daiteke gaia: lan baldintzak, sare publikoaren murrizketa, elkartasuna, ikastetxeko egituraketa eta araudiak, udal politikak, ikerketa, indarkeria, digitalizazioa eta pantailak, protokoloak, kideen arteko harremanak, askotariko gatazkak...

Hala ere arreta berezia jarri nahi dugu haurren etxekoetan. Familia da haurraren lehenengo hezkuntza testuingurua, eta Haur Hezkuntzan familiarekiko lankidetzak funtsezko osagaia da kalitatezko hezkuntza bermatzeko (4.GIH). Horregatik, EAEko Haur Hezkuntzako curriculumak (75/2023 Dekretua) azpimarratzen du familien eta ikastetxeen arteko elkarlana ezinbestekoa dela haurraren garapen integrala, ongizatea eta ikaskuntza sustatzeko. Haur bakoitzaren errealitatea ulertzeko, haren beharrei modu egokian erantzuteko eta hezkuntza esku hartze koherentea eraikitzeke, ezinbestekoa da familien parte-hartzea, konfiantzazko harremana eta komunikazio iraunkorra. Hala ere, familia guztiak ez dira berdinak, eta askotariko errealitate, kultura, hizkuntza, balio eta bizi-baldintzak kontuan hartzea dagokio irakasleari. Irakasle lanbidearen ikuspegitik era askotatik landu daiteke gaia, adibidez: eskolarako egokitzapen-aldia eta harrera planak, irakasleak bigarren mailako atxikimendu irudi gisa, familien parte-hartzea Haur Hezkuntzan, familia eta eskolaren arteko komunikazio bideak, hizkuntzen kudeaketa, familia aniztasuna, hezkuntza komunitatea, eta abar.

## 5. HEZKUNTZA ETA 0-3 ETAPAREN BEREZITASUNAK

0-3 urte bitarteko etapa bizitzako garairik garrantzitsuenetako bat da hazkunde fisikoaren, garapen psikologikoaren, emozionalaren eta sozialaren ikuspegitik. Garai horretan eraikitzen dira ondorengo garapenaren oinarriak, eta hurrek erritmo bizian garatzen dituzte mugimendua, hizkuntza, komunikazioa, autonomia, atxikimendua eta ingurunearekiko harremanak. Horregatik, Haur Hezkuntzako lehen zikloko irakaslearen lana zaintzatik harago doa; haurraren garapen integrala sustatzeko, haren ongizatea bermatzeko eta garapen-prozesuak modu profesionalean behatzeko ardura du. EAEko Haur Hezkuntzako curriculumak (75/2023 Dekretua) haur bakoitzaren garapen integrala, ongizate emozionala, erritmo indibidualen errespetua eta kalitatezko interakzioen garrantzia azpimarratzen ditu. Aldi berean, etapa honetan egindako behaketa pedagogiko sistematikoak aukera ematen du garapenaren bilakaera ezagutzeko, arrisku-adierazleak garaiz hautemateko eta, beharrezkoa denean, beste profesional batzuekin koordinatutako esku-hartzea bideratzeko. Irakasle lanbidearen ikuspegitik ertz askotatik landu daiteke gaia, adibidez: mugimendu askearen garrantzia (Pikler eredua), atxikimendua, edoskitzea eta eskolaratzea, fardela uzteko prozesua, zentzumenezko jolasak, behaketa pedagogikoa, arrisku eta babes faktoreen identifikazioa garapenean eta abar.

-Hautatutako gaia lau ertzetatik landu beharko du ikasle taldeak: soziologiari, historiari, psikologiari eta irakaslearen funtzioari erreparatuta, beti ere. Ulertzen dugu, komunikazioa edozein lanetan, ahoz zein idatziz, zehar-lerro gisa landuko dutela.

### 5.3.2 Lanaren egitura eta ezaugarriak

Modulu lana gauzatzeko jarraian agertzen den egitura proposatzen da:

#### 1.Sarrerera

*Sarreran, Haur Hezkuntzako graduako mailan K1 moduluko ezaugarriak komentatu daitezke. Arrazoitu behar da gai hau zergatik hautatu den eta zergatik den garrantzitsua Haur Hezkuntzan. Era berean, lanak dituen helburuak ere aipa daitezke sarreraren atalean. Honela antolatu daiteke: gaiaren aurkezpena eta egoeraren justifikazioa eta egituraren aurkezpena (nondik nora joango den lana).*

#### 2.Testuingurua

*Gaia bere testuinguruan kokatu beharko da. Datuak, bilakaera, joerak, azterketak. Hautatutako gaiaren errealitatea hobeto ulertzeko laguntzen gaituzten faktore soziologikoak eta historikoak ondo identifikatzea eta azaltzea ere lagungarria izango litzateke.*

### **3. Gaiaren lanketa**

*Gaiaren inguruan zer dakigu? Zer ikertu da? Teoriarik ba ahal dago? Zer diote teoriek? Zein da egin beharreko argipen kontzeptuala? Gaia zein ikuspegi eta begiradetatik aztertzen ari da? Zeintzuk dira adostasunak eta desadostasunak? Proposamen praktiko zehatzik ba ahal dago?*

### **4. Prozesua**

*Prozesuaren inguruko iruzkin txikia gehituko da. Zehazki, lanaren garapenaren nondik norakoak azaldu beharko dute: zein izan da prozesua, zelan moldatu dira, zergatik hartu dituzte hartu dituzte hartutako erabakiak, hasierako espektatibak, bidean gainditutako zailtasunak, lanarekin lortutako asebetetze maila, talde-lanaren eraginkortasuna, bileretako aktak gehitu Azken batean, laneko metodologia eta talde bizitzaren berri eman beharko dute atal horretan.*

### **5. Proposamena**

*Proposamenak egiteko, gaiaren analisia, interpretazioa eta balorazioa egin behar dira, testuinguruan garatutako kontzeptuak eta ideiak aplikazio zehatzetara ekartzeko. Testuinguruan garatutakoa ongi aztertu ostean, Haur Hezkuntzaren eremuan aplikagarriak izango diren proposamenak edo jada aplikatu diren esperientziak azalduko dira. Zenbaitetan, lagungarria da Psikologiaren edota Irakasle Funtzioaren eremuko iturri edo erreferentzietan oinarritzea: hezkuntza plan bat, protokolo bat, esku-hartze/ proiektu bat psikohegiztaile edo soziolinguistiko bat, etab. Beste zenbaitetan, ekintza zehatzak ere proposa daitezke, beti testuinguru kontzeptuarekin garatutako kontzeptuetan oinarrituta.*

### **6. Erreferentziak (APA arauak 7. edizioa)**

*-Irakasle bakoitzak, bere diziplinako erreferentziazko bi irakurgai proposatuko dizkio ikasle taldeari. Beraz, emandako zortzi erreferentzia izango dituzte, eta beste zortzi lantzeko aukera irekita izango dute. Lehen zortzi erreferentzia horiek, osotasunean irakurritakoak izan behar dira. Beraz, gutxienez, 8 eta gehienez, 12 iturri akademiko-zientifiko erabiliko dira.*

### **7. Eranskinak (halakorik balego)**

Talde bakoitzak (azken ebaluazioaren kasuan, ikasle bakoitzak) **gehienez ere, 10 orrialdeko modulu lana** gauzatuko du; **azala, erreferentzia bibliografikoen orrialdeak eta eranskinak ez dira zenbaketan sartzen.**

Modulu lana gauzatzeko, irakasle taldeak eskainiko duen **txantilo** **ofiziala** **baliatu** beharko da, APA arauen jarraituz ezaugarri formalen. Irakasle taldeak **eGelan** jarriko du, bertatik deskargatzeko. **Ezaugarri formalak** honako hauek izango dira: Arial 11, EHUserif 11 edo EHUsans 11. Lerroarte 1,5 eta marjinak 2,5 cm.

### 3.Taula

#### Kronograma

| Atala                           | Zertan datza                                                                                                                                                                                                                                          | Orri kopurua |
|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|
| -Sarrera:                       | Gaia azaldu eta justifikatu (motibazioa, irigarritasuna, pertinentzia)                                                                                                                                                                                | 1            |
| -Testuingurua.                  | Gaia bere testuinguru sozialean kokatu datuen bidez.                                                                                                                                                                                                  | 2            |
| -Gaiaren lanketa:               | Gaiaren historikoa egin. Gaiaren dimentsio soziologikoa, psikologikoa eta irakasleari dagokion funtzioari lotutakoa landu.                                                                                                                            | 3-4          |
| -Prozedura (talde metodología): | Talde lana nolakoa izan da, lan banaketak, arazoak, zailtasunak, lankidetzaren ereduak, aktak...                                                                                                                                                      | 1-2          |
| -Ondorioa-iruzkina-proposamena: | Gaia landu ostean, zein ondorio/proposamen edo iruzkin egiten den. Aurrera begira edo balorazio gisa.                                                                                                                                                 | 1            |
| -Erreferentzia bibliografikoak  | Blogak eta web orriak aparte egongo dira eta printzipioz ez dute zenbatuko erreferentzia kopuru gisa. Ikasgai bakoitzetik bi autore emanak, eta bi autore hautatuak (8 guk emanak, 8 haiek landuta). Zortzi artikulua irakurrita, eta ez zortzi zita. | 1-2          |

## 5.4 Tutorizatutako lana

Zeharkako konpetentziak lantzea ahalbidetzen duen modulu lanaren prozesua tutorizatua izango da; ikasleek egindako lanaren **gertuko jarraipena eskaintzeko asmoz**, taldeak moduluko irakasgaien irakasleen artean banatuko dira. Era horretan, irakasle bakoitzak bere taldeak tutorizatuko ditu lauhilekoan zehar, ikasle horientzako erreferentzia bihurtuz.

Behin taldeak osatuta, **tutoreen esleipena** eGelaren bidez argitaratuko da. **Tutorearekin, gutxienez, bi tutoretza (bilera) egingo dira. Tutoretza horietara taldekide guztiak azalduko dira.**

Bestalde, ikasle-talde bakoitzaren esku geratzen da behar dituen hainbeste tutoretza egitea, betiere, tutorearekin adostu ondoren.

Edonola ere, tutorea erreferentziazko figura izan arren, ikasleek **moduluko koordinatzailearen laguntza** ere edukiko lukete beharrezkoa balitz.

### 5.4.1. Tutorearen zereginak

Funtzionamendu kolektiboaren arrakastan eragin handia edukiko du irakasle bakoitzak bere zeregin propioak konpromisoz eta arduraz egiteak. Zeregin zerrenda luzea izan baliteke ere, hona hemen garrantzitsuenak:

- Modulu lanaren koordinaziorako bileretan parte hartzea.
- Moduluetarako Akordioen Gida ezagutzea eta errespetatzea (Fakultateko webgunean eskuragarri).
- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Irakaskuntza gidan esplizitatzea hurrengo aspektu hauek:
  - o Moduluko konpetentziak
  - o Modulu lanaren ebaluazio irizpideak (moduluko irakasle taldeak adostutakoak)
  - o Modulu lana irakasle taldeak adostutako errubrikaren arabera ebaluatzea.
- Diziplinarteko ebaluazio saioetan parte hartzea eta horretan partekatutako diziplinarteko notak bere irakasgaien aplikatzea.



- Balorazio saioetan parte hartzea.

#### 5.4.2. Ikasleen zereginak

Ikasleen kasuan adierazgarriak izan daitezkeen zereginak azpimarratuko ditugu segidan:

- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Moduluetarako Akordioen Gida ezagutzea eta errespetatzea (Fakultateko webgunean eskuragarri).
- Talde moduan funtzionatzea, horretarako jarraian agertzen den definizioari erreparatuz: ***“Ezagutza eta trebetasun osagarriak erakusten dituzten pertsonak, helburu komuna dutenak eta elkarren erantzuleztat hartzen direnak. Lankide guztiak garrantzitsuak dira eta, beren ekarpenen bidez, sinergiak garatzen lagun dezakete”.***
- Eskatutako zereginak zehaztutako moduan garaiz bidaltzea.
- Tutorearekin harremanetan jartzea, gutxieneko tutoretzak adosteko.
- Modulu eremuan antolatzen diren formakuntza saioetan, hitzaldietan edota tailerretan aktiboki parte hartzea.
- Azken ebaluazioa egingo duen ikaslea izanez gero, irakasgaietako irakasle bakoitzaren tutorego orduetatik pasatzea lehenengo hilabetean zehar.
- Kontuan hartzea uneoro **jarrera, gaitasuna bezain garrantzitsua** dela.

#### 5.4.3. Egin beharreko tutoretzen helburua

- **LEHENENGO TUTORETZA:** tutorearen esleipena egin ondoren, taldekideek eta tutoreek elkar ezagutzeaz gain, gaiari lehen hurbilketa bat egiteko aukera izango dugu; garrantzitsua da talde bakoitzak ordezkari bat izendatzea. Modulu lanaren zeregitekoaren nondik norako guztiak landuko dituzte, dena ondo ulertu dela ziurtatuz. Era berean, **talde bakoitzak aurkezpen-fitxa entregatu beharko du (1. eranskina)**. Tutoretza hori, klase orduetan egingo da.
- **BIGARREN TUTORETZA:** azaroko lehen astean izango da eta tutorearen ohiko tutoretza orduetan egingo da. Lehen tutoretza eta bigarrenaren artean, lanaren testuinguruaren atala irakaslearen eskuetan egon behar du. Bigarren tutoretza hau, azken ematekoaren aurreko azkena da. Bertan, ikasle taldeak ordura arte landu duen lanaren kopia eramango du paperean, eta horren gainean egingo da tutoretza.

- **Tutoretzak, irakasleak taldearen lana nola doan ikusteko bitartekoa da.**  
Baita ikasle taldeak dituen zalantzak argitzeko unea ere. Beraz, taldekide guztiak bertaratzeaz gain, prestatuta eramatea garrantzitsua da.

**Modulu lana 9. astean entregatuko da**, hain zuzen, epemuga AZAROAREN 16a da (egun hau barne), PDF formatuan. **Taldearen ordezkariak kopia bat bidaliko dio bere tutoreari, EHuko posta elektronikoaren bitartez. Bestetik, moduluko eGelan baliatuko den estekan igoko dute lanaren beste kopia, lanaren erregistro ofiziala eman dadin.**

### **5.5 Lanaren faseak eta ematekoak**

Modulu lana egoki gauzatu ahal izateko, irakasle taldeak-lauhilekoan zehar, lau mugarri egongo direla adostu du. Jarraian agertzen dira emateko bakoitzaren helburuak eta eginbeharrekoak:

#### **1. EMATEKOA**

Irailaren 15an, taldeek gaia hautatuko dute, eta baita arrazoitu ere. Gai hori zertan datzan, nola kokatuko duten edo zein ikuspegitik landuko duten azalduko du ikasle taldeak. Hau da, gaia zergatik hautatu duten eta gaiaren garrantziaren zergatiak azalduko dituzte. Beraz, sarreraren atala lantzen hasiko dira.

- 2. EMATEKOA:** Gaia kokatzen lagunduko duen testuinguruaren atala jasoko du. Zein da egoera horri lotitako egoera Euskal Herrian. Datu bilketa edo eztabaidaren sintesia.

#### **3. EMATEKOA: Azken entrega**

- 4. EMATEKOA:** Ahozko azalpena. Irratsaio formatua izango duen talde elkarrizketa egingo die irakasleek ikasle taldeari, lanaren eduki, forma eta prozesuaren inguruan.

#### 4. Taula

*Ematekoak eta Tutoretzak*

| LANAREN FASEAK ETA PLANGINTZA (Etengabeko ebaluazioa) |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|-------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. ASTEA</b><br>(Irailak 7)                        | Harrera ekintzak: moduluko aurkezpena. Modulu gida eta Moduluetako Akordioen Gidaren aurkezpena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| <b>2. ASTEA</b><br>(Irailak 14)                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasle taldeak osatuko dira eta fitxa bidez jakinarazi.</li> <li>- Gaia hautatu eta justifikatuko da.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>3. ASTEA</b><br>(Irailak 21)                       | <p>Talde bakoitzaren tutorearen esleipena eta lehen tutoretza</p> <p><b>1. TUTORETZA</b></p> <p><i>Tutoretza hau derrigorrezkoa da. Tutorearen esleipena egin ondoren, taldekideek eta tutoreek elkar ezagutzeaz gain, gaiari lehen hurbilketa bat egiteko aukera izango dugu. Garrantzitsua da talde bakoitzak ordezkari bat izendatzea. Era berean, talde bakoitzak aurkezpen-fitxa entregatu beharko du (1. Eranskina).</i></p> |
| <b>4. ASTEA</b><br>(Irailak )                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>5. ASTEA</b><br>(Urriak 5)                         | <b>LEHEN EMATEKOA (urriak 8)</b><br>Irakasleak taldeari jakinaraziko dio egindako lana nola ikusi duen. Hobetu edo zuzendu beharreko gauzak adieraziz.                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>6. ASTEA</b><br>(Urriak 12)                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>7. ASTEA</b><br>(Urriak 19)                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>8. ASTEA</b><br>(Urriak 26)                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>9. ASTEA</b><br>(Azaroak 2)                        | <b>2. TUTORETZA</b><br><i>Tutoretza hau derrigorrezkoa da. Tutorearen tutoretza orduetan egingo da.</i>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>10. ASTEA</b><br>(Azaroak 9)                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>11. ASTEA</b><br>(Azaroak 16)                      | <b>Lanaren entrega (azaroak 16).</b> Lana tutoreari korreoz bidaliko zaio eta koordinatzaileak eGelan zabalduko duen esteka erabiliz igoko da, <b>BIAK</b> .                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <b>12. ASTEA</b><br>(Azaroak 23)                      | <b>Ahozko aurkezpenak (azaroak 24 eta 25).</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |

#### 5.6. Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk

1. **Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia** ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta, akatsak nabariak direnean, edota testua ulergaitza denean, lana ez da zuzenduko eta hurrengo deialdirako hobetu beharko da. Hizkuntza erabilera ebaluatzeko, irakaslegaiaren prestakuntza egokia aintzat hartuta, Fakultatean adostutako errubrika baliatuko du irakasle taldeak. **15 akats**

**larri baino gehiago (ergatiboa, komunztadura, ortografia, aditzen jokaerak) egiten badira, lana ez da gaindituko.**

2. **Ikuspegi teorikoa:** modulu lana egiteko Haur Hezkuntza graduko lehen mailako bost diziplina erabiliko dira. Ikasle batzuek Garapenaren Psikologia Eskola Adinean irakasgaia konbalidatuta izango dute, hau da, beste ikasketa batzuk burutu dituztenez, irakasgai honekin lotutako ezagutzak barneratu dituztela ontzat ematen da. Hori dela eta, modulu lanean ikuspegi hori ere erabili beharko da, ezinbestekoa baita.
3. **Iturri kopurua: Gutxienez, 8 eta gehienez, 10-12 iturri akademiko-zientifiko** erabiliko dira, moduluan lantzen diren irakasgaiekin lotura dutenak. Iturri hauek testuan zehar eta erreferentzia bibliografikoen atalean **APA arauen 7. edizioa** jarraituz txertatuko dira.
4. Modulu lan hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHuren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere –adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean–.Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera

## 6. EBALUAZIOA

**6.1. Etengabeko ebaluazio sisteman:** tutore bakoitzak bere ikasle taldeen ebaluazioa gauzatuko du. Entregatzeko epemuga pasata, tutoreak ez badu kopiarik jaso eta/edo eGelan ez badago igota kopiarik, taldeak lehenengo deialdian EZ GAINDITUA jasoko du.

Modulu lanak gehienez ere bi puntuko kalifikazioa jasoko du. Bi puntu hauek **adostutako errubrika (3. eranskina) kontuan hartuz** ebaluatuko dira. Kalifikazio hau modulu eGelaren bitartez jakinaraziko da, eta moduluko bost irakasgaietan aplikatuko da.

**Modulu lana gainditzea ezinbestekoa** izan daiteke irakasgaiak gainditu ahal izateko; hori egiaztatzeko beharrezkoa da irakasgai bakoitzaren irakaskuntza gida kontsultatzea. Ondorioz, modulu lana gainditu ezean, irakasgai hauek suspendituak egongo dira hurrengo deialdira arte. Modulu lana gaindituz gero, kalifikazioa bi ikasturtez gordeko da.

**6.2. Azken ebaluazio sisteman:** [Moduluetarako Akordioen Gidak](#) (Fakultateko webgunean eskuragarri) modulu lana etengabeko ebaluazio sisteman gauzatzeko zehazten dituen baldintzak bete ezean, azken ebaluazio sistema jarraitu beharko da. Gomendatzen da egoera honetan dauden ikasleek moduluko koordinatzaileari honen berri ematea.

Ebaluazio sistema hau jarraitzen duten ikasleek moduluko koordinatzailea tutore izango dute bere ikasketa-prozesuan laguntzeko. Hala ere, gutxienezko tutoretzarik ez dira egingo eta ikasle bakoitzaren esku geratzen da tutorearekin harremanetan jartzea.

Azken ebaluazioan, ikasleek honako zeregin hauek izango dituzte:

- Bakarka egindako **lan idatzia**, aurrerago azaldu diren argibideak jarraituz (egitura, gaia, etab.). **ENTREGATZEKO EPEMUGA: azaroak 16 (posta elektronikoaren bidez, tutoreari).**

-Hamabost minutuko **aurkezpen bat**, non modulu lanaren nondik norako esanguratsuenak azalduko dituzten. Ahozko aurkezpen hori modulu taldeko bi irakasleen aurrean egin beharko dute **Fakultateak zehaztutako data ofizialean** (urtarrilean). Ahozko aurkezpena gainditzea beharrezkoa izango da. **OHARRA: Fakultateak zehaztutako data ofizialean aurkezpena gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lan idatzia gainditu izana; gainditu ezean ez da aurkezpenik egongo. Beraz, bi atalak gainditu beharko dira.**

Kalifikazioa, gehienez, bi puntukoa izango da, **betiere adostutako errubrika (4. eranskina) kontuan hartuta**. Ebaluazioa modulu eGelaren bitartez jakinaraziko da.

**OHAR GARRANTZITSUA:** ohiko deialdian, modulu lana suspenditzen bada, ikasle-taldeak dagozkion hobekuntzak egin ondoren, beranduenez, ezohiko deialdiko data ofizialaren bezperan, tutoreari posta elektronikoaz bidaliko diote. Azken ebaluazioan, aldiz, lan

idatzia ezohiko deialdiko data baino astebete lehenago tutoreari posta elektronikoaz bidaliko zaio eta aurkezpena egun horretan egingo da. Hala ere, azken nota aurretik, amaierako ematekoaren ondoren lanak 1,7 eta 2 arteko puntuazioa izanez gero, 10 eguneko epea izango du talde horrek lana hobetzeko.

## 7. OHIKO GALDERAK

[Moduluetako Akordioen Gidan](#) ikasleen oinarritzko galderak kontsulta ditzakezue.

## 8. ERREFERENTZIAK

Cano, E. (2008). La evaluación por competencias en la educación superior. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*, 12(3), 1-16.

Carlino, P. (2005). *Escribir, leer y aprender en la universidad: Una introducción a la alfabetización académica*. Fondo de Cultura Económica.

Echevarría, M.A. (2009). Alfabetización académica en el ámbito universitario, in Rojo, J., Ruiz, U. eta Ruiz, K. (arg.) *Hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza eta ikaskuntza* (93- 108 orr.). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Etxaniz Erle, X. (2004). *Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Titulazioen Autoebaluaziorako txostena*. ANECara bidalitako barne dokumentua.

Grisaleña, J. eta Campo. A. (2010). Las escuelas que aprenden: características básicas. *Organización y gestión educativa. Revista del forum Europeo de administradores de la educación*, 3, 121-145.

Goodrich, H. (2000). Using Rubrics to Promote Thinking and Learning, Educational Leadership. *Educational Leadership*, 57(5), 13-18.

Johnson, D. W., Johnson, R. T., eta Holubec, E. J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Paidós.

San Fabián, J. L. (2006). La coordinación docente: condiciones organizativas y compromiso profesional. *Participación educativa*, 3, 6-11.

Zabalza, M. A. (2003). *Competencias docentes del profesorado universitario, calidad y desarrollo profesional*. Narcea

## 9. ERANSKINAK

### 1. eranskina. Taldearen aurkezpen-fitxa

| TALDEAREN IZENA:                                             |                                |                                |                                |
|--------------------------------------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|
| 1. taldekidearen izen-abizenak                               | 2. taldekidearen izen-abizenak | 3. taldekidearen izen-abizenak | 4. taldekidearen izen-abizenak |
|                                                              |                                |                                |                                |
| Argazkia                                                     | Argazkia                       | Argazkia                       | Argazkia                       |
|                                                              |                                |                                |                                |
| TALDEAREN ORDEZKARIA (izen abizenak eta posta elektronikoa): |                                |                                |                                |

### OHARRAK

- Taldearen izena aukeratzean saihestu ez proposak izan daitezkeenak.
- Argazkiaren kasuan aurpegikoa jarri

## 2. eranskina: ikasleen balorazioa (eGelan eskuragarri)

Ondoren talde funtzionamendua errazten duen hainbat portaera eta ardura aurkituko dituzue. **Taldeka**, adostu eta baloratu 1etik, 10era taldekide bakoitzaren erantzukizuna. Gogoratu, kontuan izateko, taula **modulu lanean txertatu** behar dela

|                                       | 1.taldekidea | 2 .taldekidea | 3.taldekidea | 4.taldekidea |
|---------------------------------------|--------------|---------------|--------------|--------------|
|                                       | _____        | _____         | _____        | _____        |
| Paper aktiboa jokatu du               |              |               |              |              |
| Taldekideen parte hartzea bultzatu du |              |               |              |              |
| Ekarpen egokiak egin ditu lanean      |              |               |              |              |
| Saioetan izan da beti                 |              |               |              |              |
| Batez beste                           |              |               |              |              |



### 3. eranskina. Diziplinarteko ebaluaziorako errubrika (ETENGABEKO EBALUAZIOA)

| INGURU<br>AKADEMIKORA<br>ETA IRAKASLE<br>LANBIDERA<br><br>EGOKITZEA              | Konpetentzien<br>garapen bikaina                                                                                                                                                    | Konpetentzien<br>garapen ona                                                                                                                                                                                                                                                           | Konpetentzien garapen<br>nahikoa                                                                                                                                                               | Konpetentziak<br>garatzen segitu<br>beharra                                                                                             | Banaketa |
|----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|
| <b>Edukien eta arrazonamendu zientifikoaren egokitzea</b><br>(ebaluazio globala) | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako alde guztiak oso zuzen arrazoitzen eta aplikatzen dituzte.                                                                           | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako alde nahikoak egoki arrazoitzen eta aplikatzen dituzte.                                                                                                                                                                                 | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako oinarritzko aldeak aplikatzen dituzte.<br><br>Oinarritzko arrazonamendua egiten dute.                                                           | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako aldeak direla eta, ia ez dituzte aplikatzen.<br>Koherentziarik eta arrazonamendurik eza. | % 30     |
| <b>Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko teknikak</b><br>(ebaluazio globala)      | Ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak ez ezik, beste ekarpen asko ere erabiltzen dituzte, bibliografia errebisio sakona erakutsiz (liburuak, aldizkariak, eta abar...). | Batez ere, ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak erabiltzen dituzte, beste ekarpenen bat ere erabiliz. Liburuak, aldizkariak, eta abar... ondo konbinatzen dituzte.<br><br>Iturri gehienak ondo aipatu dituzte testuan nahiz erreferentzia bibliografikoetan (APA arauak). | Ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak besterik ez dituzte erabiltzen.<br><br>Testuan zehar ez dituzte iturriak aipatzen eta/edo erreferentzia bibliografikoetan ere akatsak daude. | Iturriarik eza.<br><br>Erabilitako iturriak ez dituzte justifikatu, ezta ondo aipatu ere.                                               | % 20     |

|                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |      |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|
|                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |      |
| <b>Taldearen parte-<br/>hartzeta eta ahozko<br/>aurkezpene<br/>(banakako ebaluazioa)</b> | <p>Ekipoak funtzionamendu bikaina erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan. Gutxieneko bi tutoretzetara, zein aste pedagogikoko jardueretara lankide guztiak azaldu dira eta jarrera oso parte-hartzailea adierazi dute. Ebaluagarriak diren jarduerak bikain egin dituzte.</p> <p>Ahozko aurkezpenean talde kohesioa eta talde lana agerikoa eta bikaina izan da. Lanaren edukien garapena, arrazoitzea, garapena, proposamena eta ondorioak modu argian eta bikainean azaldu dituzte.</p> | <p>Ekipoak funtzionamendu ona erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan. Gutxieneko bi tutoretzetara, zein aste pedagogikoko jardueretara ia beti lankide guztiak azaldu dira eta jarrera nahiko parte-hartzailea adierazi dute. Ebaluagarriak diren jarduerak ondo egin dituzte.</p> <p>Ahozko aurkezpenean talde kohesioa eta talde lana agerikoa eta egokia izan da. Lanaren edukien garapena, arrazoitzea, garapena, proposamena eta ondorioak modu argian eta egokian azaldu dituzte.</p> | <p>Ekipoak hainbat ahulezi erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan. Batzuetan, taldekide batzuk ez dira azaldu gutxieneko bi tutoretzetara edota aste pedagogikoko jardueretara, edo etorri arren, jarrera ez da parte-hartzailea izan. Ebaluagarriak diren jarduerak eskas egin dituzte edo batzuk ez dituzte egin.</p> <p>Ahozko aurkezpenean talde kohesioa eta talde lana ez dira modu sendoan agertu. Lanaren edukien garapena, arrazoitzea, garapena, proposamena eta ondorioak azaltzeko orduan arazoak izan dituzte.</p> | <p>Ekipoak ahulezi larriak erakutsi ditu modulu lana prestatzeko saioetan. Gutxieneko tutoretzarik ez dira egin, edo taldekideak ez dira etorri aste pedagogikoko jardueretara. Ebaluagarriak diren jarduerak ez dituzte egin.</p> <p>Ahozko aurkezpenean talde kohesioa eta talde lana modu oso ahulean agertu da. Lanaren edukien garapena, arrazoitzea, garapena, proposamena eta ondorioak azaltzeko orduan ez dute behar besteko gaitasuna adierazi.</p> | % 40 |

|                            |                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                             |                                                                                                   |      |
|----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| <b>Ikasleen balorazioa</b> | Taldean zein modulu lana prestatzeko saioetan paper aktiboa jokatu du eta ikaskideen parte hartzea bultzatu du. Ekipoari egindako ekarpena bikaina izan da. | Taldean, zein modulu lana prestatzeko saioetan paper aktiboa jokatu du eta ikaskideen parte hartzea bultzatu du. Ekipoari egindako ekarpena ona izan da. | Taldean, zein modulu lana prestatzeko saioetan ez du oso aktibo jokatu. Ikaskideek bere parte hartzea bultzatu behar izan dute. Ekipoari egindako ekarpena nahikoa izan da. | Taldean, zein modulu lana prestatzeko saioetan ez du parte hartu. Ekipoari ez dio ekarpenik egin. | % 10 |
|----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|------|

#### 4. eranskina. Diziplinarreko ebaluaziorako errubrika (AZKEN EBALUAZIOA) bi atalak gainditu behar.

| INGURU<br>AKADEMIKORA<br>ETA IRAKASLE<br>LANBIDERA                        | Konpetentzien garapen<br>bikaina                                                                        | Konpetentzien<br>garapen ona                                                                        | Konpetentzien<br>garapen nahikoa                                                                                                 | Konpetentziak<br>garatzen segitu<br>beharra                                                                                        | Banaketa |
|---------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|
| <b>Edukien eta<br/>arrazoinamendu<br/>zientifikoaren<br/>egokitzapena</b> | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako alde guztiak oso zuzen arrazoitzen eta aplikatzen ditu.. | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako alde nahikoak egoki arrazoitzen eta aplikatzen ditu. | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako oinarritzko aldeak aplikatzen ditu.<br><br>Oinarritzko arrazoinamendua egiten du. | Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako aldeak direla eta, ia ez ditu aplikatzen. Koherentziarik eta arrazoinamendurik eza. | % 30     |

|                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                 |             |
|------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|
| <b>Informazioa<br/>bilatzeko eta<br/>kudeatzeko<br/>teknikak</b> | <p>Ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak ez ezik, beste ekarpen asko ere erabiltzen dituzte, bibliografia errebisio sakona erakutsiz (liburuak, aldizkariak, eta abar.).</p> <p>Iturri guztiak zuzen aipatzen dituzte testuan nahiz erreferentzia bibliografikoetan (APA arauak).</p>    | <p>Batez ere, ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak erabiltzen dituzte, beste ekarpenen bat ere erabiliz. Liburuak, aldizkariak, eta abar ondo konbinatzen dituzte.</p> <p>Iturri gehienak ondo aipatu dituzte testuan nahiz erreferentzia bibliografikoetan (APA arauak).</p>                                   | <p>Ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak besterik ez dituzte erabiltzen.</p> <p>Testuan zehar ez dituzte iturriak aipatzen eta/edo erreferentzia bibliografikoetan ere akatsak daude.</p>                                                                                                  | <p>Iturririk eza.</p> <p>Erabilitako iturriak ez dituzte justifikatu, ezta ondo aipatu ere.</p>                                                                                                                                                                                 | <p>% 30</p> |
| <b>Aurkezpena</b>                                                | <p>Aurkezpen bikaina egin du, diskurtsoa testuinguru akademikora egokituta. Lanaren atal nagusiak zuzen eta argi azaldu ditu, gorputza hizkuntza egoki batekin eta euskarri digitala bikain erabilia. Egindako proposamenak, ebidentzietan oinarrituta, motibatzaileak eta originalak izan dira.</p> | <p>Oso aurkezpen ona egin du, diskurtsoa testuinguru akademikora egokituta. Lanaren atal nagusiak nahiko zuzen eta argi azaldu ditu, oro har gorputza hizkuntza egoki batekin eta euskarri digitala oso ongi erabilia. Egindako proposamenak, ebidentzietan oinarrituta, nahiko motibatzaileak eta originalak izan dira.</p> | <p>Aurkezpen ona egin du, baina zenbaitetan ez du diskurtsoa testuinguru akademikora egokitu. Lanaren atal nagusiak azaltzea lortu du zenbait akatsekin, eta gorputza hizkuntza eta euskarri digitalaren erabilera balekoak izan dira. Egindako proposamenak ez dira beti ebidentzietan oinarritu.</p> | <p>Aurkezpena ez da ona izan eta hizkuntzaren erabilera txarrak ulermena oztopatu du. Lanaren atal nagusiak ez dira ongi azaldu, eta gorputza hizkuntza eta euskarri digitalaren erabilera ez dira onak izan.</p> <p>Egindako proposamenak ez dira ebidentzietan oinarritu.</p> | <p>% 40</p> |